

AIAKO UDALEKU IREKIAK 2026

BEGIRALEAK HAUTATZEKO DEIALDIA

2026ko Ekainaren 29tik Uztailaren 30ra udaleku irekiak antolatuko ditu Aiako Udalak 2010 eta 2023 urte bitartean jaiotako haur eta nerabeentzat. Honela, udaleku hauetan begirale gisa aritzeko lan poltsa osatzeko deialdia luzatzen dizuegu. Lan poltsa hau 2026 urtean bakarrik egongo da indarrean, hau da, Abenduaren 31a bitartean.

Begiraleen kontratazioa Ekainaren 29tik uztailaren 31ra bitartekoa izango da.

Begiraleak hautatzerako garaian, hautagaiek bete behar dituzten baldintzak ondorengoak dira:

Ezinbesteko baldintzak :

- 18 urte izatea edo 2026 urtean betetzea.
- Euskara ezagutza izatea.

Honela baloratuko dira, esperientzia eta ezagutzari dagozkion puntuak. (gehienez 35 puntu)

1. Euskara tituluak B2 (4 puntu) edo C1 (6 puntu)
2. Begirale titulua izatea. (6 puntu)
3. Eusko Jaurlaritzak homologatutako begirale titulua. (4 puntu)
4. Zuzendari titulua izatea. (2 puntu)
5. Hezkuntzarekin lotutako ikasketak izatea. (3 puntu)
6. Hezkuntzarekin loturiko ikasketak burutzen aritzea. (0,5puntu/urte)
7. Lan esperientzia urtea bakoitza puntu 1 (5 puntu gehienez)
 - a. Aisialdiko begirale ludoteka edo gaztelekuetan.
 - b. Kirol begirale eskola kirolean.
8. Udaleku itxi eta irekietan hamabostaldi bakoitza 0,5 puntu. Gehienez ere 3 puntu.
9. Aian erroldatuta egotea 2026ko martxoaren 5a baino lehen (5 puntu)
10. Aiako udalak urtean zehar antolatutako ekintzetan begirale moduan aritzea. 5 puntu

Onartuak izateko, hautagaiek gutxienez 5 puntu lortu beharko dituzte.

Aukeratuak izan diren hautagaiek, adingabekoekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, besteak beste.

Aukeratuaren artean berdinketarik egongo balitz, zozketa bidez erabakiko da.

Epaimahaia: Buru: Jon Ander Azpiroz (Ordezkoa Miriam Sarasola). Mahaikideak: Igor Iturain eta Luisa Agirretxe. Idazkaria: Jose M^a Aiertza.

Beraz, interesa duenak kurrikulum-a eta informazioa egiaztatzeko dokumentazioa Udaletxean aurkeztu beharko du. Epea martxoaren 6tik martxoaren 20an arratsaldeko 14:00etan amaituko da. Ez da onartuko epez kanpoko izen-ematerik.



Behin behineko zerrenda Martxoaren 24an Aiako web orrian (www.aia.eus) argitaratuko da, bost laneguneko epea zabalduz erreklamazioak aurkezteko Udal bulegoetan. Behin erreklamazioak erantzunda, behin betiko zerrenda argitaratuko da Aiako web orrian. Kontratazioa, udalekuetan izaten den izen ematearen arabera izango da.

Informazio gehiago 943131144 telefonoan edo aia@aia.eus helbide elektronikoan.